

XEDAPENA, ABENDUAREN 12KOA, OSATEK-EKO ZUZENDARI GERENTEARENA, 2023KO AZAROAREN 2KO XEDAPENA ZUZENTZEN DUENA. XEDAPEN HARK ALDATU EGITEN ZUEN "APARTEKO DEIALDI BIDEZ LAN-KONTRATUKO LANGILE FINKO IZATEKO PROZESUA, OSATEK-EN ALDI BATERAKO ENPLEGUA EGONKORTZEKO, MEREZIMENDU-LEHIAKETA BIDEZ" BAREMOAREN OINARRI ARAUTZAILEAREN BALORAZIO-IRIZPIDEA.

AURREKARIAK

OSATEKeko zuzendari gerentearen 2022ko abenduaren 13ko xedapenaren bidez, onartu zen lanpostuak lanbide-kategorien arabera banatzea eta lan-kontratudun langile finko izateko hautaketa-prozesuaren oinarri orokorrak arautzea, aldi baterako enplegua egonkortzeko ezohiko deialdi baten bidez.

Hautaketa-prozedura arau espezifikoaren arabera garatuko da. Merezimendu-lehiaketaren kasuan, behar bezala egiaztatutako merezimenduak baloratuko dira, kategoria bakoitzaren oinarri espezifikoetan ezarritakoaren arabera.

OSATEKeko zuzendari gerentearen 2023ko azaroaren 2ko xedapenaren bidez, aldatu egin zen oinarri espezifikoetako III. eranskineko lanbide-esperientziari zegokion apartatua, egindako zerbitzu-denboraren zenbaketari zegokiona. Hala, esperientzia profesional gisa baloratu zen auzi-jartzailea erditu zenetik amatasun-/aitatasun-bajari dagokion baimena amaitu arteko aldia. Aldaketa horiek lan-kontratuko langile finko izateko hautaketa-prozesua arautzen duten oinarri espezifikoetara eragiten diete, honako kategoria hauetan lehiaketa-oposizio bidezko deialdi berezia eginez: Laguntzailea, Administrazio ofiziala, Erradiologiako mediku espezialista, Idazkaria, Kalitateko teknikaria, Hizkuntza Normalizazio teknikaria eta Teknikari manipulatzailea. Halaber, aldaketa horiek honako kategoria hauetan lan-kontratu finkoko langile izateko hautaketa-prozesua arautzen duten oinarri espezifikoetara eragiten diete, merezimendu-lehiaketaren bidezko ezohiko deialdiaren bidez: Administrazio, Laguntzailea, Administrazio ofiziala, Erradiologiako mediku espezialista, Idazkaria eta Teknikari manipulatzailea.

Xedapen horren bidez, argitaratutako eta hasitako prozesuen jarduketak lanbide-kategoria bakoitzeko onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendak argitaratu arte atzeratzea erabaki zen, eta argitaratutako eta hasitako prozesuen jarduera eta xedapen guztiak baliogabetzea, lanbide-kategoria bakoitzeko onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendak argitaratu zirenekin hura argitaratu arte.

Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 51. artikulua egintzei eta izapideei eustearen alde egiten du, eta, zehazki, honako hau xedatzen du:

"Jarduna deuseza dela deklaratu edo deuseztatzen duen organoak beti mantenduko ditu arau-hausterik egin ez balitz berdin jarraituko zuketena egintza eta izapideak"

Bestalde, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 109. artikulua aukera ematen du bere egintzetako errakuntza materialak, egitezkoak edo aritmetikoak zuzentzeko.



Data/fecha: 2023 ABE. 12

Xedapen-erregistroa / Registro de disposiciones

ZK/Nº: 130/2023

OSATEKen helburu nagusia beti da interes orokorra zaintzea, herritarren arteko zuzentasun- eta justizia-printzipioetan oinarritzen baita. Testuinguru horretan, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 51. eta 109. artikuluetan xedatutakoaren arabera arau-haustea egin izan ez balitz berdin mantenduko liratekeen egintza eta izapide guztiak mantentzearen ondorioak ebaluatzean, egiaztatzen da ez litzatekeela eragin negatiborik izango egonkortze-prozeduran parte hartzen duten hautagaiengan; aitzitik, jarduketa eta xedapen guztiak baliogabetuko balira, edukia aldatu den ala ez alde batera utzita, kalte egingo litzaielike OSATEKi eta egonkortze-prozedurak eragindako guztiei, kaltea ekarriko bailieke bai OSATEKi, bai interesdun guztiei, egonkortze-prozedura amaitzean denbora-atzerapen nabarmena gertatuko litzatekeelako.

Beraz, interes orokorra babesteko eta beharrezkoak ez diren kalteak saihesteko, garrantzitsua da egindako arau-haustek edukia aldatu ez dien egintza eta izapideei eustea.

Kasu honetan, bidezkoa da aipatutako xedapena zuzentzea, kontuan hartuta jarduketan deuseztasuna erabaki dela, eta ez dela inolá ere xedatu arau-haustea egin izan ez balitz berdin mantenduko liratekeen egintza eta izapideak mantentzea.

Horregatik guztiagatik, OSATEK Sozietate Publikoaren Estatutuetoako 18. artikuluan ematen zaizkidan ahalmenez baliatuz (ekainaren 9ko 159/19921 Dekretuaren bidez onartu ziren estatutu horiek), hau

XEDATU DUT:

Lehenengoa: Zuzentzea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 51. eta 109. artikuluetan xedatutakoaren arabera, 2023ko azaroaren 2ko Xedapenaren hirugarren apartatuaren b) letra. Xedapen horren bidez, argitaratutako eta hasitako prozesu guztien jarduketa eta xedapen guztiak baliogabetzea erabaki zen, lanbide-kategoria bakoitzeko onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendak argitaratu ziren egunetik hura argitaratu zen arte, eta, horrenbestez, espresuki xedatzea mantendu egingo direla arau-haustea egin izan ez balitz berdin mantenduko liratekeen egintza eta izapide guztiak, eta honela idatzita geratuko dela:

"Argitaratutako eta hasitako prozesu guztien jarduera eta xedapen guztiak baliogabetzea, lanbide-kategoria bakoitzean onartutakoaren eta baztertutakoaren behin betiko zerrendak argitaratzen diren egunetik xedapen hau OSATEKen web-orrian argitaratzen den arte; hala ere, arau-haustea egin izan ez balitz berdin mantenduko liratekeen egintza eta izapide guztiak mantenduko dira".

Bigarrena: Hemen adostutako zuzenketa "OSATEKen aldi baterako enplegua egonkortzeko aparteko deialdiaren bidez, merezimendu-lehiaketaren bidez" eta "OSATEKen aldi baterako enplegua egonkortzeko deialdi bereziaren bidez, oposizio-lehiaketaren bidez" argitaratutako lanbide-kategoria guztietan egindako egintza eta izapide guztiei aplikatuko zaie.

Hirugarrena: Xedapen honen aurka, gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio OSATEKen Administrazio Kontseiluari, idatziz, honako posta-helbide honetan: Urkixo zumarkalea 36, 5. Solairua, 48011 Bilbao, hilabeteko epean, webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Bilbon, 2023ko abenduaren 12an
Zuzendari/Gerentea

Josu Xabier Llano Hernaiz

